



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatu deutsie "apurka-apurka" herritarrei zerbitzu guztiak euskeraz emoteko

Bilbon, 2013ko zezeilaren 21ean.

Gaur, Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskera Batzordea batzartu da Bilbon, Ama Hizkuntzen Nazinoarteko Egunean, oposizioak aurkeztutako ez-arauzko sei proposameneri buruz eztabaidatzeko. Onartutako ekimenen artean, proposamen bi izan dira nabariak: Bildurena eta Euskal Sozialistak Taldearena. Horren bitartez, hain zuzen be, Foru Aldundiari eskatu deitso zerbitzu "guztiak" euskeraz emoteko. Bestetik, koalizio abertzaleak foru-erakundeari eskatu deitso foru-aldundiko behargin publikoen artean sentsibilizazio-kanpainak bultzatzeko.

Adostasun handiena lortu dauen proposamena PSEk aurkeztutakoa izan da, Eusko Jeltzaleak (EAJ) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeek be babestu dabe-eta. Bere proposamenean, PSEk foru-gobernuari eskatu deitso "hartu-emon informaletako sentsibilizaziorako" barru-jarduketak abian jarteko eta "apurka-apurka" zerbitzu "guztiak" euskeraz emoteko, "gure errealidade soziolinguistikoa eta zehaztutako helburuen arabera". Azken testuan, gainera, PPren eransketa-zuzenketa be hartu da kontuan, bizkaieraren sustapena, babesa eta erabilerea be kontuan hartzeko.

Bildu izan da ekimen hori bete-betean gaitzetsi dauen alderdi bakarra, "epela" dalakoan. "Asmoa oso ona da, baina apurka-apurka egingo dala esatean geldiarazo egiten da", azaldu dau Bilduko Asier Sanz ordezkariak. Euskereari buruzko Legea onartu zanetik 30 urte igaro diranean, "legeak ezarteko unea heldu da, euskaldunon eskubideak errespetatu daitezkan". Horrezaz gainera, ahalegin "berezia" egiteko eskatu deitso beharginei, lehendik dagoan araudi "egokia" bete daien. Ezker abertzaleak soziedade publikoek be ahalegin berbera egin beharko leukiela adierazo dau.

Horretarako, alderdi abertzaleak bi ekimen aurkeztu ditu, foru-administrazioan euskerearen erabilerea bultzatzeko. Lehenengo ekimena proposamen sozialistaren antzekoa izan da, eta, bertan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu deitso "herritarrei zerbitzu guztiak euskeraz emoteko". Bigarrenean, ostera, "sentsibilizaziorako jarduerak abian jarteko" eskatu deitso, "lanaren arlo informalean euskerearen erabilerea areagotu daiten". Bi proposamenek EAJren babesa euki dabe, baina PSE abstenidu egin da. PP lehenengoan abstenidu da, eta bigarrenaren aurkako botoa emon dau, "arlo informala" terminoa ez onartzean. Arturo Aldecoa ahalordedun popularrarentzat, Bildu "ur handitan" sartu da, eta "errakuntza larria" egin dau, Foru Aldundiak ezin ditualako personak euren lanean euskerea erabilten behartu. Gero, ostera, gai hori ukatu dau Bilduk. Euskerea "eztabaida politikotik aterateko" eskatu dau batzarkide popularrak.

EAJ bat etorri da hiru ekimenakaz, baina ñabardura batzuk egin ditu, Bilduk aurkeztutako ekimenetan "nahikoa" ez egitearren aldundiari "kritikea" egiten deitsoela uste dauelako alderdi jeltzaleak. Talde horrentzat, hain zuzen be, Foru Aldundiak araudia beteten dau, eta, horren arabera, gaztelaniaz zein euskeraz emon behar dira zerbitzuak. EAJko Zuriñe Argatza ahalordedunaren eretziz, foru-erakundeak inguruabar hori "bermatzen dau", eta "herritarren borondatearen" arabera areagotu dau euskerearen erabilerea. Sentsibilizaziorako kanpainen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

jagokenez, EAJren esanetan, aldundiak herritar guztientzako kanpainak egin ditu, eta aldundian bertan be barruko jarduketak garatu dira, euskerearen erabilera areagotzeko; esate baterako, erabilerarako mikroplanak jarri dira abian.

ARTEAREN DOHAINTZA-EMOILEEN AITORPENA

Bestetik, Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskera Batzordeak EAJk, PSEk eta PPK alde emondako botoez onartu dau PPK aurkeztutako ez-arauzko proposamena. Horren arabera, Foru Aldundiak zeozelango aitorpena egin beharko leuskie ondasun kulturalak dohaintzan emon, gordailatu edo laga egiten ditueni, museo horreek foru-erakundeak diranean edo foru-administrazioa beste museo batzuetako patronatuko edo kontseiluko kidea danean. Popularrek EAJren zuzenketa onartu dabe, informazio horrek ongileen baimena euki daian. Bildu abstenidu egin da, neurri hori “familia handien edo ospetsuen loriarako” dala uste dau-eta.

BURTZAKO MEATZARI-AUZOAK

Batzordeak aho batez onartu dau PPK aurkeztutako proposamena. Horren bidez, Foru Aldundiari eskatu deutso Trapagarango Zugaztietako Burtzako meatzari-auzoaren egoera “aztertzeko”. Hain zuzen be, “ustezko jarduketak aztertu eta helburu erabilgarria emon beharko jako” herrigune horri. Bere sasoiari, ehunka biztanle, eskolea eta “jaustear dagoan” kantinea euki zituan, Arturo Aldecoa ahalordedun popularrak azaldu dauen lez. Talde guztiek bete-betean onartu dabe ekimena. Bide batez, EAJk gogora ekarri dau zelako jarduketak bultzatu dituan aldundiak inguru horretan; Meatzarien Museoa, esaterako. Era berean, Deustuko Unibersidadeak auzoari buruzko azterketa egiteko asmoa daukela be iragarri dau.

ARTE ESZENIKOETAKO GOI-ESKOLEA

Amaitzeko, batzordeak Bilduk aurkeztutako ez-arauzko proposamena gaitzetsi dau. Horren bitartez, Arte Eszenikoetako Goi Eskolearen sorrera bultzatu gura eban. Euskal kulturearentzat arte eszenikoak oso garrantzitsuak dirala kontuan hartuta, gainerako taldeak ekimenaren muinagaz bat etozan. Halanda be, EAJk eta PPK nabarmendu egin dabe Batzar Nagusiek prestakuntza-zentro hori abian jarteko eskumenik ez daukiela, eskumen hori Eusko Jaurlaritzarena dalako. “Eusko Jaurlaritzako gaur eguneko taldeak jarri beharko dau abian ekimen hori”, azaldu dau EAJk batzordean daukan Jon Sánchez bozeroaleak. Batzarkide jeltzaleak onartu egin dau eskoleak behar besteko aurrekontua eukala Gasteizko gobernuko 2010. eta 2011. urteetako kontu publikoetan, baina ekimen hori geldiarazo egin eben ostean. “Apustu estrategiko interesgarria izan daiteke”, baina “hau ez da foroa”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

COMISION DE CULTURA Y EUSKERA

Las Juntas Generales piden a la Diputación foral que ofrezca al ciudadano de forma “progresiva” todos sus servicios en euskera

Bilbao, a 21 de febrero de 2013.

La Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaia se ha reunido hoy en Bilbao, coincidiendo con el Día Internacional de la Lengua Materna, para debatir seis Proposiciones No de Norma. Entre las iniciativas aprobadas, destacaban dos propuestas, una de Bildu y otra del Grupo Socialistas Vascos, destinadas a instar a la Diputación Foral a que esta institución ofrezca “todos” sus servicios en euskera. La comisión ha aprobado también el que el ente foral impulse campañas de sensibilización de la lengua vasca entre sus empleados públicos.

La proposición que ha concitado un mayor consenso ha sido la planteada por el PSE, apoyada también por los representantes de los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Popular Vizcaíno (PP). En su proposición, el PSE solicita al gobierno foral la puesta en marcha de actuaciones internas de “sensibilización en las relaciones informales” y a facilitar “de forma progresiva todos los servicios en euskera”, “en función de nuestra realidad sociolingüística y de los objetivos marcados”. El texto final ha recogido una enmienda de adicción del PP para que se incorpore el impulso, conservación y uso del euskera vizcaíno.

Bildu ha sido la única formación en mostrar un rechazo frontal a esta iniciativa al definirla de “tibia”. “Plantean buenas intenciones pero se pone un freno cuando hablan de progresividad”, ha dicho el representante de Bildu Asier Sanz. Después de cumplirse 30 años desde que se aprobó la Ley del Euskera, “ha llegado el momento de aplicar las leyes para que se respeten los derechos de los vascoparlantes”. El juntero de la coalición abertzale ha pedido un esfuerzo “especial” a los trabajadores forales y a que se cumpla la que - para él - es una normativa vigente “adecuada”. La izquierda abertzale ha pedido que este esfuerzo se extienda también a las sociedades públicas.

Para ello, la formación abertzale ha presentado dos iniciativas con el mismo espíritu de impulsar el uso del euskera a nivel interno dentro de la Administración foral. En la primera, similar a la proposición socialista, Bildu insta a la Diputación Foral de Bizkaia a “facilitar a la ciudadanía todos los servicios en euskera”; y en la segunda, a que “ponga en marcha actividades de sensibilización para incrementar el uso del euskera en el ámbito informal del trabajo”. Las dos propuestas han contado con el apoyo del PNV y la abstención del PSE. El PP se ha abstenido en la primera y ha votado en contra de la segunda al no asumir el término “ámbito informal”. Para el apoderado popular Arturo Aldecoa, Bildu se adentra en un terreno “pantanosos” y comete un “gravísimo error”, porque la Diputación foral no puede “obligar” a las personas a que utilicen el euskera en su trabajo, cuestión que ha negado después la coalición abertzale. El juntero popular ha pedido que el euskera “salga del debate político”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El PNV ha mostrado su conformidad con las tres iniciativas pero con algunos matices en las presentadas por Bildu. La formación jeltzale ve una “crítica” a la Diputación por no hacer “lo suficiente”. Para este grupo, la Diputación foral está dando cumplimiento a la normativa que establece que los servicios se deben prestar, tanto en castellano como en euskera. Para la apoderada del PNV Zuriñe Argatza, el ente foral “garantiza” esta circunstancia. Los jeltzales han unido también el incremento del uso de la lengua vasca en la Administración a la “voluntad” de los propios ciudadanos. En cuanto a las campañas de sensibilización, el PNV ha manifestado que la Diputación ha hecho campañas dirigidas a toda la ciudadanía y ha recordado las actuaciones internas llevadas a cabo por la Diputación para el aumento del uso de la lengua vasca, como la puesta en marcha de los microplanes de uso, reconocidos recientemente por el Gobierno Vasco.

RECONOCIMIENTO A LOS BENEFACTORES DE ARTE

Por otra parte, la Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado con los votos favorables de PNV, PSE y PP, una Proposición No de Norma de este último grupo para que la Diputación foral promueva un mecanismo de reconocimiento a quien done, deposite o ceda un bien cultural, en los museos forales o en otros en los que participe como miembro de su patronato o consejo. Los populares han aceptado una enmienda del PNV para que esta información tenga la autorización previa de los benefactores. Bildu se ha abstenido al dudar de que esta medida y no sirva más bien para “vanagloria de las grandes familias o personas famosas”.

BARRIO MINERO DE BURZACO

La Comisión ha aprobado por unanimidad una propuesta del PP para instar a la Diputación foral a “estudiar” la situación del barrio minero de Burzaco en la Arboleda (Trapagaran), “analizar posibles actuaciones y darle un destino útil”, a un núcleo urbano que contó con centenares de habitantes, una escuela y un cantina y que se “está desmoronando”, según el apoderado popular Arturo Aldecoa. Todos los grupos han apoyado la iniciativa sin fisuras. El PNV ha aprovechado el momento para recordar las actuaciones que la Diputación está impulsando en la zona como el Museo Minero, y ha apuntado que la Universidad de Deusto se ha propuesto ya hacer un estudio sobre este barrio.

ESCUELA SUPERIOR DE ARTES ESCÉNICAS

Por último, la comisión ha rechazado una Proposición No de Norma de Bildu que pretendía impulsar la creación de la Escuela Superior de Artes Escénicas. Pese a que el resto de grupos se han mostrado conformes con el fondo de la iniciativa por la importancia de las artes escénicas para la cultura vasca, el PNV y PP han coincidido en apuntar que las Juntas Generales no son el “espacio competencial” idóneo para pedir la puesta en marcha de este centro formativo, ya que la capacidad de impulsar esta infraestructura cultural está en manos del Gobierno Vasco. “Corresponde al equipo actual del Gobierno Vasco el poner en marcha la iniciativa” ha dicho el portavoz del PNV en la comisión, Jon Sánchez. El juntero jeltzale ha reconocido que la Escuela, que contaba con cuantías presupuestarias en los presupuestos del Ejecutivo de Vitoria de años



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

anteriores, que posteriormente fueron eliminadas, puede llegar a ser una apuesta estratégica de interés” para Bizkaia. Pero "éste no es el foro”.